



aztiker  
SOZIOLOGIA IKERGUNEA

2020/01/13



# BAKIO

# AURREKONTU PARTEHARTZAILEAK

PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS | 2020

## -TXOSTENA-

# AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA .....</b>	<b>3</b>
<b>2. PROZESUARI HURBILPENA .....</b>	<b>4</b>
2.1. AURREKARIAK .....	4
2.2. HELBURUAK .....	5
2.3. LAN FASEAK .....	6
2.3.1. ABIATZEA .....	6
2.3.2. PROPOSAMENEN JARRAIPENA ETA HERRITARREI INFORMAZIOA.....	8
2.3.3. AURREKONTUAREN GALDETEGIA .....	10
2.3.4. ERABAKIA .....	12
<b>3. BALORAZIOA .....</b>	<b>18</b>
<b>4. AMAIERA .....</b>	<b>19</b>

# 1. SARRERA

---

Bigarren urtez Bakioko udalak aurrekontuak herritarrekin osatzeko partaidetza prozesua garatu du. Aztiker Soziologia Ikergune eta aholkularitzarekin garatu da 2019ko urrian hasi eta 2019ko abenduan amaitu den prozesua. Txosten honetan prozesuaren urrats, eduki eta xehetasunak bildu dira.

Partaidetzazko aurrekontuen bidez lortu nahi da herritarrek politika publikoetan duten eragiteko gaitasuna handitzea; eta, aldi berean, mekanismo honen bidez, erakunde publiko eta herritarren artean elkarlan eta parte-hartze kultura indartu nahi da. Hori horrela, herritarrei zuzenduriko prozesua izan da, eta finean, haiek izan dira 2020ko udal aurrekontuari ekarpena egin diotenak.

Bakioko Udalak bultzatutako partaidetzazko aurrekontuen prozesua biltzen du txostenak, honako egitura honi jarraituta. Lehen atalean prozesuaren deskribapen metodologikoa jaso da, izan dituen urrats nagusiak eta bakoitzean egindako lanen xehetasunak. Ondoren, bigarren atal batean prozesuaren ondorioak bildu dira, prozesuan garatutako bozketaren ondorioz hartutako emaitzak, hain zuzen. Txostenarekin amaitzeko, prozesuaz egin den balorazioa azaltzen du azken atalak.

## 2. PROZESUARI HURBILPENA

---

### 2.1. AURREKARIAK

Bakioko aurrekontu partehartzaileen lehenbiziko esperientzia 2018an egin zen, 2019ko aurrekontuaren inguruko erabakiak hartzeko. Prozesu hura jatorrizko metodologiaren baldintza eta urratsak errespetatuz garatu zen, eta guztira 5 hilabeteko iraupena izan zuen. Herritarrek era aktiboan parte hartu zuten, eta partaidetza kopuru aldetik oso ona izan zuen.

Aurreko urtean egindako lanaz balorazio positiboa egin bazen ere, 2020ko aurrekontuetarako prozesua beste era batera egiteko aukera baloratu zen, eta horren atzean bi arrazoi nagusi kokatu:

- a) Aurreko urtean egindako prozesuan herritarrek egindako proposamen guztien parte bat soilik burutu da, hortaz, gaur gaurkoz oraindik, hainbat proposamen edo ideia garatzeko aukera dago. Beste modu batean esanda, herritarren proposamen gehiago egin aurretik lehengo urtean egin zituzten eta garatu ez diren horiek berrartzeko hautua egin da. Aintzat hartu behar da, 2018ko prozesuak partaidetza handia izan zuela, eta Bakioko Udal aurrekontua, herri txikia izanik, urte batean hainbat proposamen exekutatzeko mugatua dela. Hori dela eta, 2020ko aurrekontuak osatzeko, oinarri gisa herritarrek 2018ko prozesuan egindako ekarpenak erabiltzea hobetsi da.
- b) 2018an egindako prozesuan baloratu zen udal aurrekontuaren inbertsioen atala eta gastu arruntaren atala elkarrekin lantzea ez zela eraginkorra, trataera ezberdina behar zutela. Hori dela eta, 2020ko aurrekontua osatzeko erabili den metodologiak honi ere erantzun dio, batetik, inbertsioetarako proposamenak landu dira, eta bestetik, gastu arruntarekin lotutako partida ezberdinak baloratu dira.

## 2.2. HELBURUAK


Helburu orokorra gastu publikoaren atal bat herritarrekin erabakitzea da. Horrez gain, gobernantza edo kudeaketa eredu berrietan urratsak ematea, Udala-herritarrak lotura eta ardura landuz.

Helburu zehatzagoak izango dira, berriz:

- Herriak dituen beharretara hurbiltzea herritarren egunerokoaren eta proposamenen bidez. Herritarren behar eta lehentasunen diagnostia burutzea.
- Udalaren eta herritarren gerturatzea bultzatzea, herritarrak udalera hurbilduz eta udala herritarrengana. Horretan, interakzioa eta elkarlanerako eskemetan trebatzea da helburua, hiru xede talde nagusiak kontuan izanik: ordezkaritza politikoa, udal teknikariak eta herritarrak.

## 2.3. LAN FASEAK

Prozesuak hainbat lan fase izan ditu, hurrengo eskeman ikusi ditzakegu eman diren urrats nagusiak zein diren.



### 2.3.1. ABIATZEA

Prozesuaren aurrelanketa gisa bi lan burutu dira, udala osatzen duten **alderdien arteko akordioa** (EhBildu, EAJ eta Bakio Bai) landu da eta prozesua herritarrei **komunikatzeko erabiliko diren bitartekoak** eta hauen erabilera adostu dira.

- [Akordio politikoa](#)

Bakioko Udalean ordezkaritza duten alderdi politikoaren arteko adostasuna bilatzea izan da lehen urratsaren xedea. Aztikerrek alderdi guztiekin banan bana bilerak egin ditu, bertan prozesuaren ezaugarri nagusiez eztabaidatu eta adostasun baterako ekarpenak jaso ditu.

Alderdi bakoitzak hasierako zirriborro baten gainean egin du lan, eta gero, alderdi politiko guztien ordezkariek elkarrekin bilduta egindako bileran prozesua babesteko minimoak adostu dira.

Honakoak dira prozesuari dagokionez adostu diren puntuak:

1. *Prozesuaren funtsarekin bat egiten dugu: aurrekontuaren atal batzuk herritarrekin egindako partaidetza prozesu bidez eztabaidatu eta erabakiko dira.*
  - a. *2020ko Udal Aurrekontuaren Gastu Arrunterako proposamenak eta aldaketa/moldaketa posibleak landuko dira, alde batetik, aukera dagoen aldaketa posible guztiak txertatuz; eta*
  - b. *bestetik, 2018ko prozesuan inbertsioetarako jaso ziren proposamenak berriro ere landuko dira: bozketara iritsi ziren proposamenen artean, hautatu ez ziren zerrendarekin berriro ere lan egingo da.*

2. *Prozesua erabakitzailea izango da, beraz, herritarrek erabakitzen dutena osoko bilkuran onartzeko konpromisoa hartzen dugu. Partaidetzari garrantzia emateko herritarren %10ak parte hartzeko erronka ezarri diogu prozesuari.*
3. *Alderdien artean osatutako batzorde edo lan mahaian hartuko dira erabakiak, eta horrexegatik, funtzio hauek beteko dituzte alderdi politikoetako ordezkariak:*
  - a. *Herritarrei etxeetara bidaliko zaien galdetegiari ekarpenak egin.*
  - b. *Prozesuak dituen aurkezpen egunetan parte hartu: prozesuaren berri emateko egingo den lehendabizikoan (azaroaren 8an), eta emaitzaren berri emateko egingo den azken aurkezpenean. Bi aurkezpen hauez gain, herritarrekin egingo diren bilera irekietan parte hartzeko aukera ere izango dugu.*
  - c. *Galdetegiaren epea amaitzen denean azken erabakia hartzeko bileran parte hartuko dugu.*
4. *Prozesuan zehar desadostasunik izanez gero, horiek komunikatu eta kudeatzeko borondatea adierazten dugu. Zalantza edo desadostasun baten aurrean aholkularitzarekin harremanetan jartzea izango da lehen urratsa, eta teknikari hauekin adostuko da desadostasuna kudeatzeko prozedura.*
5. *9 eta 18 urteko bakiorek ere prozesuan parte hartzeko aukera izango dute, horretarako beste bitarteko batzuk erabiliko dira; hala nola, Haurren Kontseilua edota galdetegi egokitua.*
6. *2019.urteko aurrekontu partehartzailean erabakitako proposamenen exekuzioaren jarraipena egingo da, eta Bakioko herritarrei jakinaraziko zaie. Aurten aurrekontu partehartzaileen prozesuarekin batera egingo da.*
7. *2020.urtean aurrekontu parte hartzailean erabakitako proposamenen jarraipena egiteko konpromisoa hartzen dugu. Horretarako, hiruhileko maiztasunarekin, proposamenen egoera eguneratuko da eta herritarren esku jarri.*

- [Komunikazio plangintza](#)

Prozesua abiatzeko adostutako bigarren urratsa komunikazio lanak zertan datzan eta bere exekuziorako lan banaketa izan dira. Bakioko Udalaren, Aztikerren eta Biko Komunikazioaren artean egindako elkarlanetik burutu da komunikazio lana.

Alde batetik, komunikazio lan guztien plangintza egin da: sortu behar diren euskarri guztiak, komunikatu behar diren edukiak, hauen formatua, komunikatzeko epeak, bideak eta arduradunak zehaztu dira.

Aztikerreko teknikaria arduratu da komunikazio euskarrien edukia sortzeaz, eta beharrezkoa izan den kasuetan eduki horrekin euskarri grafikoak diseinatu ditu Biko Komunikazio enpresak. Bukatzeko, Bakioko Udala arduratu da euskarrien zabalpenaz, hala nola, kartelak kalean izateaz, etxeetara informazioa helarazteaz edo webgunean informazioa eguneratzeaz.

Hurrengo koadroan komunikazio alorrean sortu diren euskarri guztiak zerrendatzen dira eragile bakoitzak burutu duen lanaren arabera antolatuta.



**BAKIO**  
**AURREKONTU**  
**PARTEHARTZAILEAK**  
PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS | 2020

Prosezua Aurrekuzpena Presentación	Bilera irekiak / Reuniones abiertas		
<b>Azaroak 8</b> Noviembre	<b>Azaroak 21</b> Noviembre	<b>Azaroak 24</b> Noviembre	<b>Abenduak 1</b> Diciembre
ORDUA   HORA <b>19:30</b>	ORDUA   HORA <b>19:00</b>	ORDUA   HORA <b>10:45</b>	ORDUA   HORA <b>12:45</b>
LEKUA   UBIDEA <b>Udaletxean</b>	ALDUA   BARRIO <b>Zubiaur, Artzalde</b>	ALDUA   BARRIO <b>San Petelo</b>	ALDUA   BARRIO <b>Goizalo, Basigo,</b>
LEKUA   UBIDEA <b>Elizkeraren</b>	NON   DONDE <b>Txakolinguetan</b>	NON   DONDE <b>Elizan/Iglesia</b>	NON   DONDE <b>Parrokiak/Patroquia</b>

**Bete galdetegia azaroaren 18tik abenduaren 6a arte**  
Rellena el cuestionario desde el 18 de noviembre hasta el 6 de diciembre

**EMAN ZURE IRITZIA**  
PORQUE TU OPINIÓN CUENTA

**BAKIO** | INFORMAZIO ETA GALANIZAK | INFORMACIÓN Y CONSULTAS  
[www.bakio.eus](http://www.bakio.eus) | [partehartubakio@bizkaia.org](mailto:partehartubakio@bizkaia.org)

### 2.3.2. PROPOSAMENEN JARRAIPENA ETA HERRITARREI INFORMAZIOA

Prozesua garatzeko bigarren urratsa 2019ko aurrekonturako onartu ziren proposamenen egoera herritarrei helaraztea izan da. Horretarako bi lan nagusi egin dira: lehenik, **dokumentazio lana**, 2019ko aurrekonturako erabakitako proposamenen egoeraren eguneratzea eta sailkatzea; bigarrenik, herritarrei era ulergarri eta zuzenean informatzeko **aldizkaria** landu da.

Dokumentazio eta zabalpenaren helburua aurreko urteko proposamenen egoeraren informazioa jaso eta zabaltzeko materiala prestatzea da. Urrats hau aurtengo prozesuaren hasieran egin den arren, alderdi politikoen artean adostu bezala, aurrerantzean, sistematikoki edo era iraunkorrean egin beharreko lana izango da.

Hortaz, bi euskarri sortu dira, lehena informazioa biltzeko, eta bigarrena, aldiz, informazioaren zabalpenerako.



- a) Barne mailako euskarria: excell orri batean, 2018ko proposamen bakoitzaren xehetasun guztiak bildu dira. Excell honetan urtetik urtera partaidetzazko aurrekontuen bidez erabakitzen diren proposamenen inguruko informazio bateratua edukitzea lortzea da asmoa, sistematizatua eta konparagarria izango dena. (1.eranskina\_jarraipenerako euskarria)

Proposamenen jarraipenerako sortuko den excell dokumentuak honako atalak ditu:

- Proposamena: formulazioa
  - Onartu den urtea: Bakioren kasuan 2019ko aurrekontua
  - Arduradunak: sail arduraduna, arduradun teknikoa eta arduradun politikoa
  - Proposamenaren egoera zehatza: egina / martxan / aztertzen
  - Egoeraren deskribapena: proposamena aurkitzen den egoera zehatza azalduko da atal honetan.
  - Aurrekontua: balorazio teknikoan jaso zen aurrekontu zehatza
  - Aurrekontu erreala: aurreikusi zen horretatik garatu denean izan duen kostu erreala.
  - Aurrekontu tartea: 5.000€ baina gutxiago; 5.000-10.000€; 10.000-30.000€; 30.000-50.000€; eta 50.000€ baina gehiago.
  - Proposamenaren gaia: orokorra; argiteria; kirola; kultura; etab.
  - Proposamenaren lurralde interbentzioa: herri osoa; orokorra; auzo zehatz baten izena
  - Proposamenaren onuraduna edo hartzailea: herri osoa; haurrak; nerabe eta gazteak; adineko pertsonak; emakumeak...
- b) Kanpo mailako euskarria: jaso den informazio garrantzitsuenaren laburpena, herritarrentzat era ulerterrazean aldizkari batean jaso da. Aldizkari hau, etxe guztietara buzoneatu da eta udalaren webgunean ere jarri da. halaber, Udal aurrekontuaren ezaugarrien inguruko oinarrizko informazioa ere eman da. (2.eranskina\_aldizkaria)

## PROPOSAMENEN JARRAIPENA

Aurreko urtean egindako prozesuan honako **5 proposamenak** aurrekontuetan sartzeko erabakia hartu zen. Proposamenak erritmo ezberdinetan ari dira garatzen. Hau da bakoitzaren egoera:

	<p><b>Argiteria hobetu herriko toki hauetan:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Askadako begiratokia. Egiten ari da</li> <li>2. Zubiaurrealde-Probaleku. Eginda</li> <li>3. Saioa Plaza. Egiten</li> <li>4. Ureta bidea. Aztertzen</li> <li>5. Goltiena bidea. Aztertzen</li> <li>6. Kanposantuko eskailerak. Eginda</li> <li>7. Basigoko bide nagusia. Eginda</li> </ol>	122.400€	 EGITEN
	<p><b>Argiteria hobetu beharra detektatu den herriko zortzi zebra-bidetan.</b> 2019ko udazkenean bukatu da.</p>	29.040€	 EGINDA
	<p><b>Bidegorriaren luzapena egin Skatepark ingurua eta San Pelaloko bidegurutzea lotzeko.</b> 2019ko udazkenean bukatu da.</p>	80.000€	 EGINDA
	<p><b>Haur Parkeak berritzea:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Bentako jolas parkea berriztu. Egiten</li> <li>2. Tirolina bat Bakea inguruan. Marismarekin batera egingo da</li> <li>3. Beste zabu bat jarri hondartzan. Egiten</li> </ol>	36.800€	 EGITEN
	<p><b>Bakean komun publiko bat jarri.</b> Hurrengo hilabeteetan bukatuko da.</p>	60.000€	 EGITEN

**2.3.3. AURREKONTUAREN GALDETEGIA**

Galdetegia izan da 2020ko aurrekontuetan herritarrek haien ekarpena egiteko eskuragarri izan duten tresna. Lehenik **galdetegiaren edukia** prestatu da, horretarako ordezkari politikoekin hainbat bilera egin dira; eta behin edukia zehaztu denean, galdetegi formatua eman zaio eta etxe guztietara banatu da **herritarrek prozesuan parte hartu** dezaten.

• **Galdetegiaren diseinua eta kontrastea**

2019ko aurrekontuak erabakitzekeo prozesuaren baloraziotik abiatuta osatu den galdetegiak bi atal izan ditu. Alde batetik, inbertsioak lantzeko atala, eta bestetik, gastu arrunta lantzekoa. Aztikerrek zirriborro bat osatu du eta alderdi bakoitzarekin egindako bileran aurkeztu du, hauei, ekarpenak egiteko epe bat emanez. Hainbat ekarpen izan dira, bereziki gastu arruntaren atalari dagokionez. Hortaz, bigarren proposamen bat egin du, eta alderdi guztiekin batera egindako bileran aurkeztu eta baloratu da. Bigarren proposamenarekin aurrera jarraitzea erabaki da, xehetasun batzuetan aldaketak egin ondoren.

Ondorioz, galdetegia hiru atalez osatu da:

- Lehenengoan, aurreko urteko prozesuan bozketara iritsi ziren eta oraindik garatu gabe dauden proposamenak ageri dira. Bertan, hiru garrantzitsuenak hautatzeko eskatzen da.
- Bigarren eta hirugarren atalarekin gastu arrunta landu da, eta horretarako erreferentzia nagusia Bakioko udal aurrekontuan gastu arruntan egiten den partiden banaketa izan da. Hori horrela, bigarren atalean gaur egun udalak egiten dituen hainbat lan 1-10 arteko eskala batean baloratzeko eskatu zaie herritarrei.
- Hirugarren atalean, aldiz, 26 lan ezberdinen beharrizana neurtu da "gutziz beharrezkoa", "beharrezkoa dirudi", "dagoen bezala utzi", "ez dirudi beharrezkoa" eta "ez da batere beharrezkoa" eskalan kokatuz. Bukatzeko, herritarrek iruzkin gehigarriak egiteko aukera izan dute aurreko baieztapenetan gehiago sakontzeko. *(3.eranskina\_galdetegia)*

**EMAN ZURE IRITZIA**

**GALDETEGI HAU BETETZEKO EPEA ABENDUAREN 6an BUKATUKO DA**

Buztiaz, udalarekin, herritarren iruzkinak, kulturarekin eta garapenera daude.

**BAKIO** Aurrekontu Parte-Hartzaileak 2020

1. Dimeasa egiteko pertsona bakoitzari 30.000€

2. Herriko hainbat pertsona bakoitzari 15.000€

3. Dime-erantzutzaile bakoitzari 8.000€

4. Herriko koroa eta inguruko espazioak 6.534€

5. Herriko koroaren berrikuntza 23.000€

6. Herriko koroaren berrikuntza 20.000€

7. Herriko koroaren berrikuntza 20.000€

8. Herriko koroaren berrikuntza 20.000€

9. Herriko koroaren berrikuntza 15.000€

10. Herriko koroaren berrikuntza 20.000€

**SALDIRAZI** Herriko 8 UDALAK EGITEN DITUEN OINARRIZKO LANAK

1. Herriko koroaren berrikuntza (30.000€)

2. Herriko koroaren berrikuntza (20.000€)

3. Herriko koroaren berrikuntza (20.000€)

4. Herriko koroaren berrikuntza (20.000€)

5. Herriko koroaren berrikuntza (20.000€)

6. Herriko koroaren berrikuntza (20.000€)

7. Herriko koroaren berrikuntza (20.000€)

8. Herriko koroaren berrikuntza (20.000€)

**BAIEZTAPENETAN**

1. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

2. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

3. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

4. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

5. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

6. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

7. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

8. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

9. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

10. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

11. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

12. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

13. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

14. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

15. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

16. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

17. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

18. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

19. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

20. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

21. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

22. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

23. Zure iruzkinak erabakitzean parte hartu duzue?

**BAKIO** [www.bakio.eus](http://www.bakio.eus) [partehartubakio@bizkaia.org](mailto:partehartubakio@bizkaia.org)

- Herritarren partaidetza

Bakioko herritarrek azaroaren 15etik abenduaren 5era arteko epea izan dute aurrekontu partehartzaileen prozesuan bozkatzeko. Horretarako beharrezko bitartekoak ezarri dira aurrez, eta pizgarri gisa 2020ko aurrekontuak erabakitzeko prozesuan 300 herritar inguruk parte hartzeko erronka ezarri da, herritarren %10ak alegia.

Galdetegia betetzeko etxe guztietara banatu dira aldizkaria eta galdetegia, eta herriko hainbat puntutan (udaletxean, kiroldegian, anbulatorioan, kultur etxean eta Txakolingunean) kutxak ezarri dira, herritarren haien bozka utzi dezaten.

Hortaz gain, udaleko webgunean ere atal bat egokitu da, prozesuaren inguruko informazio guztiarekin eta bozketan parte hartzeko aukerarekin.

Gainera, aurrez aipatutako bi helburuei eusteko auzokideekin bilera irekiak egin dira, alde batetik, aurreko urteko proposamenen egoeraren berri eman eta zalantzak argitzeko; eta bestetik, 2020ko aurrekontua erabakitzeko prozesua eta galdetegiaren gaineko azalpenak aurrez aurre emateko.


Hauek izan dira saioen data eta tokiak:

- a) Azaroak 21, 19:00 Zubiaur eta Artzalde. Txakolingunean
- b) Azaroak 24, 10:45 San Pelaio: Elizan
- c) Abenduak 1, 12:45 Goitisolu, Basigo eta Urkitzaur: Parrokian

Saio guztietan Aztikerreko teknikari batek aurrekontu partehartzaileen atala dinamizatu badu ere, udal ordezkariak aurrekontua bere osotasunean aurkeztu eta auzokideei eragiten dieten beste hainbat gai ere landu ditu.

Bakioko Udalak haurren partaidetza sustatzeko asmoari ere heldu dio, partaidetza politikoa pertsonaren garapenerako eta heziketarako oinarrizko baliabide gisa ulertuta. Hori dela eta, aurrekontu partehartzaileetan ere, haurrak, nerabeak eta gazteak txertatzeko neurriak hartu dira, 9 eta 18 urte arteko bakiokarrek prozesuan parte hartzeko aukera izan dute bitarteko bereziak ezarriz:

- Lehen hezkuntzako ikasleek Haurren Kontseiluaren bidez galdetegia landu dute, kontzeptu guztiak ondo ulertzen direla ziurtatzeko eta bozketak nola egiten den ezagutzeko.
- Etxe etxeko banaketa pertsonalizatua egin da 9 eta 18 urteko bakiokarrentzat, haiek datuak eman beharrik ez izateko, bakoitzaren etxebizitzara galdetegi bat helarazi da, prozesuaren inguruko azalpen eskutitz batekin.



### 2.3.4. ERABAKIA

Bozketa epea amaitu denean galdetegi guztien **ustiaketa** egin da eta lortutako **emaitzak** ordezkari politikoei aurkeztu zaizkie **azken erabakia** hartzeko.

Abenduaren 9 eta 13 arteko astean Aztikerreko teknikariek galdetegiaren ustiaketa burutu dute eta Bakioko udal erroldarekin kontrastatu, bozkatu duten herritarrak behin bakarrik egin dutela eta Bakion erroldatuak daudela ziurtatzeko. Abenduaren 16an ordezkari politikoei egindako bileran hartu da azken erabakia.

Jarraian prozesuak utzi dituen partaidetza datuak eta galdetegiaren emaitzak aurkezten dira.

- [Herritarren partaidetza](#)

Prozesuan guztira 250 pertsonak parte hartu dute, horietatik 230 galdetegi izan dira baliozkoak, Bakioko herritarren %8,6a da, eta biztanleria aktiboaren (+9 urte) %9,4a.

GUZTIRA	250
Izenik gabekoak	7
Udal erroldan ez daudenak	10
Inkesta bi aldiz bete dutenak	3
Baliozkoak	230


Adin talde bakoitzak biztanleria osoan daukan pisua aintzat hartuta, baieztatu daiteke 30-44 urte artekoak izan direla gehien parte hartu dutenak (%12,8), eta 65 urte baina gehiago dutenak berriz partaidetza datu baxuenak izan dituenak (% 6,2).

	Guztira	Baliozkoak	%
Biztanleak	2.681	230	8,6
Biztanleak +9	2.446	230	9,4
9-17 urte	255	26	10,2
18-29 urte	231	22	9,5
30-44 urte	596	76	12,8
45-64 urte	860	75	8,7
65+ urte	504	31	6,2


Galdetegi betetzeko erabilitako hizkuntzari erreparatzen badiogu parekoa da euskararen eta gaztelaniaren erabilera, 114 galdetegi bete dira euskaraz, eta 116 gaztelera. Adinarekin alderatzen badugu ordea, grafikoan ikus daitekeen bezala, gazteenek ia osotasunean euskaraz bete dute, adinean gora joanda gero eta gehiago izan dira gazteleraz bete dutenak, 65 urtetik gorako adin tartean euskarazkoa hirutik batek erabiltzera iritsi arte.

Eta partaideen sexuari dagokionez emakumezkoak izan dira parte hartu dutenen %55a.

**Galdetegi betetzeko erabilitako hizkuntza adinaren arabera**




**Partaidetza sexuaren arabera (aprox.)**



- Prozesuaren emaitzak

Atal honetan galdetegiak dituen hiru ataletako emaitzak aurkezten dira.



1) **INBERTSIO LEHENETSIAK:** Ondorengo koadroan biltzen dira proposamen bakoitzak jaso dituen bozka kopuruak, kopuru altuenetik baxuenera antolatuta.

znb	PROPOSAMENA	€	BOZKAK	%
1	Gimnasia egiteko parkea sortu Bakean. Gazte (kalistenia) zein adineko pertsoneri zuzenduta.	39.500 €	117	50,9
10	Abiadura murrizteko neurriak hartu	20.000 €	107	46,5
4	Herrian konposta egiteko konpostontzi bat jarri.	6.534 €	92	40,0
7	Bizkarganeko urbanizazioan, egoera txarrean dauden espaloi eta kanalizazioak konpondu.	50.000 €	68	29,6
2	Haur zein helduentzako altura baxuko rokodromo bat (boulder) bat jarri Bakean.	15.600 €	67	29,1
3	Zine-emanaldiak areagotu urte guztian zehar: hilabetean behin edo bitan egin.	6.000 €	63	27,4
5	Kiroldegian rokodromo bat jarri.	25.300 €	51	22,2
9	Seinalitika plana: Herriko seinalitika guztiaren diagnostiko bat egin eta horren birmoldaketa egiteko plan baten diseinua.	15.000 €	45	19,6
8	Kotxe elektrikoak kargatzeko puntu jarri herrian.	20.000 €	36	15,7
6	BTT informazio puntua eta bizikletak garbitzeko gunea.	20.000 €	30	13,0

2) **GASTU ARRUNTAREN BALORAZIOA:** Honakoa da gastu arruntean zehaztutako 9 atalek jaso duten balorazioa 1-10 eskalan. 1 izanik "asko hobetu daiteke" eta 10 "oso ondo egiten du".

BALORAZIOAK	PUNTUAZIOA
1. Mantentze-lanak (bideak, parkeak, eraikinak, mobiliarioa...)	6,1
2. Energia-aurrezpena (Udalaren azpiegituran)	6,3
3. Kultura eta jaiak	6,5
4. Herritarren zaintza (emakumeak, gazteak, haurrak, migratuak, adinekoak...)	6,8
5. Komunikazioa	6,8
6. Hondakinen kudeaketa	6,0
7. Zerbitzuak (eraikinen garbiketa, turismoa, liburutegia, lorezaintza...)	6,9
8. Herritarren partaidetza	7,6
9. Kiroldegiko eskaintza	6,7
<b>GUZTIRA BATAZ BESTE</b>	<b>6,6</b>




- 3) **PARTIDA ZEHATZEN BEHARRIZANA:** Partida bakoitzak erakusten duen beharrizana 1-5 arteko eskalan. 1 izanik "ez da batere beharrezkoa" eta 5 "guztiz beharrezkoa da".

<b>1. MANTENTZE-LANAK (BIDEAK, PARKEAK, ERAIKINAK, MOBILIARIOA...)</b>	<b>3,8</b>
1.1 Argiterian mantentze-lan gehiago egin	4,0
1.2 Parke eta hiri mobiliarioaren mantentze-lan gehiago egin	3,9
1.3 Bide publikoen mantentze-lan gehiago egin	4,1
1.4 Eraikin publikoen mantentze-lan gehiago (Ibarreta, Kiroldegia, Kultur etxea, frontoia, eskola, anbulategia...)	3,9
1.5 Auzoetako zerbitzuetan hobekuntzak egin (argia, internet, saneamendua, ura...)	4,3
1.6 Kale-garbigeta hobetu	3,5
1.7 Lorezaintza hobetu	3,2
<b>2. ENERGIA-AURREZPENA (UDALAREN AZPIEGITURAN)</b>	<b>3,8</b>
2.1 Energia aurrezteko neurriak ezarri eraikin publikoetan	3,9
2.2 Eraikin publikoen berokuntza-sistemak eraginkortu	3,7
<b>3. KULTURA ETA JAIK</b>	<b>3,5</b>
3.1 Bakioko jaiak indartu	3,7
3.2 Bakioko musika astea indartu	3,1
3.3 Beste jaiak (Andra Mari, San Jose, Olentzero, San Juan, Basigoko jaiak, San Pelaioko jaiak...) indartu	3,4
3.4 Kultur ekitaldi gehiago antolatu (kontzertuak, antzerkia...)	3,9
<b>4. HERRITARREN ZAINTZA (EMAKUMEAK, GAZTEAK, HAURRAK, MIGRATUAK, ADINEKOAK...)</b>	<b>4,0</b>
4.1 Emakumeen ahalduentzari begirako ekimenak antolatu	4,0
4.2 Haurren partaidetza sustatzeko neurriak hartu	4,0
4.3 Gazteei begirako politikak indartu	4,2
4.4 Migratuen integrazioan laguntzeko jarduerak burutu	3,9
4.5 Adinekoen zaintzarako politika indartu	4,1
4.6 Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko ekimenak indartu	4,1
<b>5. KOMUNIKAZIOA</b>	<b>3,6</b>
5.1 Udal komunikazioa indartu	3,6
<b>6. HONDAKINEN KUDEAKETA</b>	<b>4,4</b>
6.1 Hondakinen kudeaketan hobekuntzak egin	4,4
<b>7. ZERBITZUAK (ERAIKINEN GARBIKETA, TURISMOA, LIBURUTEGIA, LOREZAINZA...)</b>	<b>3,5</b>
7.1 Eraikin publikoen garbigeta indartu	3,6
7.2 Liburutegiko zerbitzua indartu	3,6
7.3 Turismo bulegoaren zerbitzua indartu	3,2
<b>8. HERRITARREN PARTAIDETZA</b>	<b>3,8</b>
8.1 Partaidetza politikak gehiago garatu	3,8
<b>9. KIROLDEGIKO ESKAINTZA</b>	<b>3,8</b>
9.1 Kiroldegiko zerbitzuetan hobekuntzak egin	3,8

- Gastu orokorreko partiden beharrizana daukaten balorazioaren arabera

Grafiko honen bidez bigarren atalean lortutako emaitzak eta hirugarren atalean lortutakoak konparatu dira, beste era batera esateko, atal ezberdinetan udalak egiten duen lanaren **balorazioa** eta horien **beharrizana** alderatu dira. Ardatz horizontalean herritarrek udalaren hainbat lan nola baloratzen dituzten ageri da, esaterako, "herritarren partaidetza" da balorazio hobena duena (7,6), eta "hondakinen kudeaketa" da balorazio okerrera jasotzen duena (6). Ardatz bertikalean, lan horiek hobetzeko beharra neurtu da, adibidez, herritarrek uste dute "Herritarren zaintza" hobetzeko beharra dagoela (4), eta Zerbitzuen atalean "turismo bulegoa" (3,2) dagoen bezala uztearen aldekoagoak dira.



#### 4) HERRITARREN EKARPENEN LABURPENA

Herritarrek egindako ekarpenek jasotzen dituzten ideia nagusiak laburbiltzen dira jarraian. Ekarpen guztiak dagokion ataletan sailkatuta txostenarekin batera entregatzen den eranskinean jaso dira kontsultarako (4. *Eranskina\_ekarpen irekiak*).

1.1 Argiteriaren mantentze lanak hobetzeko eskatzen da, baita argiteria areagotzeko puntu batzuk zehazten dituzte herritarrek: Bakeako parkea, Nazape plaza, udal garajearen gaineko plaza, Bakioko Bide Nagusia eta Skate parkean.

1.2 Haur parkeen garbitasuna zaintzeko eskatzen da, eta horrekin batera, bankuen mantentzea areagotzea.

1.3 Bide publikoen mantentze lanei dagokionez herritarren eskaerak nahiko orokorrak badira ere, puntu batzuk nabarmentzen dira: futbol zelai ingurua, Bizkargane eta Eroski aurreko parkinga.

1.4 Herritarren ustez eraikin publikoen artean mantenimendua hobetzeko beharrean daudela aipatzen dira Ikasaldek entseiatzen duen lokala, forntoia eta Ibarreta eraikina.

1.5 Hainbat herritarrek uste dute auzoetako zerbitzuak hobetu behar direla. Huake dira zehaztu dituztenak: Elexalde auzoko bidea eta iberdrolako sarea konpondu eta mantendu; eta, San Pelaio saneamendua ez baitago.

1.6 Kale garbiketari dagokionez, txakur-kakak sortzen dute kezka nagusia.

2.1 Energia aurrezteko neurriak Klima-aldaketaren aurka hartu beharreko beste neurri bat bezala ulertzen dute herritarrek.

3.1 Jaiak indartzearen inguruan egiten diren aipamenak dira, alde batetik nerabeentzako eskaintza hobetzeko beharra dagoela, eta bestetik, lokalizazioaren inguruan kezka dago errepidetik gertu dagoelako.

3.4 Kultur ekitaldiei dagokionez, agenda aberaasteko eskatzen da, batzuk kolektibo jakinei egiten diete errefrentzia (haurrak, gazteak...etab) eta beste batzuk garai edo urtaroei (udazken eta neguan bereziki).

4.3 Gazteei begirako politikak indartzeko beharra ikusten dute herritar ugariak. Proposamen gisa aipatzen da kiroldegiaren erabilera gazteei erraztea bertan kirolarekin harremanetan aisialdi proiektuak lantzeko.

4.5 Adineko pertsonen zaintzan indar gehiago egiteko eskatzen dute partaide askok, eta proposamen zehatz bat egiten da, jubilatuen etxea egun osoz irekitzea zerbitzua handituz.

5.1 Komunikazioaren arloan esaten da herritar asko egiten diren hainbat jardueraren inguruan ez direla informatzen, eta baita komunikazioa euskaraz zein gazteleraz egiteko eskatzen da.

6.1 Hondakinen kudeaketan hobekuntzak egiteko beharra nabaria da, eskaera konkretua da organikoaren frakzioa birziklatzeko edo konposta egiteko baliabideak behar direla.

7.1 Eraikin publikoen garbiketan frontoia eta eskola aipatzen dira.

7.2 liburutegiko zerbitzua indartzeko eskaerak dira ordutegia gehiago zabaltzea eta ikasketa-gela bat ere egotea.

8.1 Partaidetza politikak gehiago garatzen jarraitzeko eskatzen dute herritarrek eta proposatzen da udaleko webgunea berritzea herritarrekin komunikazioa eta partaidetza areagotzeko.

9.1 kiroldegiko zerbitzuan hobekuntzak egiteko eskaeren artea daude: ordutegia gehiago zabaltzea, espazioen erabilera gehiago aprobetxatzea, prezio jaistea, eta patinatze espazioa egokitzea (leku babestua, konoak...)

- [Azken erabakia](#)

Ordezkarri politikoekin egindako bileran hartu dira prozesuak utzitako emaitzak ikusi eta baloratu eta gero azken erabakiak. Galdetegiko lehen atalari dagokionez, aurrez adostu bezala, bozketaren emaitza hartzen da aintzat. Bigarren eta hirugarren atalei dagokionez, hau da, gastu arruntari dagokionez, bakoitzak bere ondorioak atera ditu ikusitako emaitzatik eta guztion artean elkarbanatu dira. Hainbat ondorio konpartituak direla ikusi da eta hortaz kontsentsua dagoen puntu horiek hartu dira gastu arruntean aldaketak egiteko erreferentzia nagusi gisa. Hortaz, honakoak dira 2020ko aurrekontuei herritarrek egindako ekarpenak:



**a) Inbertsioen ataleko lehen hiru proposamenak**

- (1) Gimnasia egiteko parkea sortu Bakean. Gazte (kalistenia) zein adineko pertsoneri zuzenduta.
- (2) Abiadura murrizteko neurriak hartu eta
- (3) Herrian konposta egiteko konpostontzi bat jarri. **2020ko udal aurrekontuan sartuko dira.**

**b) Gastu arruntaren atalean, honako, partidetan esfortzu handiagoa** egingo da 2020ko aurrekontuan:

- **Hondakinen kudeaketa** hobetzeko neurriak hartuko dira
- **Mantentze-lanak:** Bereziki, bide publikoen mantentze-lan gehiago eta auzoetako zerbitzuetan (argia, internet, saneamendua, ura...) hobekuntzak egiteko beharra nabari da.
- **Herritarren zaintza:** emakumeen ahalduntzean, gazteei zuzenduriko politiketan, haurren parte hartzean, pertsona migratuen inklusioan, adineko pertsonen zaintzan eta euskararen ezagutza zein erabileran dago beharra.
- **Herritarren partaidetza** politikak gehiago garatzen jarraitzea.
- **Kiroldagiko zerbitzuen** eskaintza hobetzea

### 3. BALORAZIOA

---

Aurrekontu partehartzaileen prozesua bukatutzat eman aurretik, ordezkari politikoekin egindako bileran prozesua baloratzeko tarte hartu da.

2020ko aurrekontuei begira egindako prozesu honi ikusten zaizkion alde positiboak honela laburtu daitezke:

- a) Partaidetzari begira aipatzen da prozesuak izan duen iraupen laburra ikusita egokia dela parte hartzaileen kopurua. Genero aldetik parekatua izatea eta erdiak euskaraz parte hartzea positibotzat jotzen da. Adinari dagokionez, gazteenen (9-18 urte artean) partaidetza azpimarratzen da, garrantzitsua da etorkizunari begira partaidetzazko kultura bat herria txertatzen joateko.
- b) Herritarrei transmititutako informazioa asko izan da, aldizkaria eta auzo-bileren bidez, hortaz egokia da baina etorkizunean era arinago edo iraunkorrago batean egiteko formulak bilatu beharko direla aipatu da.
- c) Parte hartzeko aukera edo bide aniztasuna balioan jartzen da, uste da bide ezberdinak egoteak partaidetza errazten duela.
- d) 2019ko aurrekontuak erabakitzekeko prozesuarekin konparatuz, nahiz eta prozesua ezberdina izan, azalpen gutxiago eman behar izan zaizkie herritarrei, jadanik ezaguna da eta horrek erraztasunak ematen ditu.

Hobetzekoak eta aurrera begira kontuan hartzekoak ere izan ditu prozesuak:

- a) Denborari dagokionez laburra izanda, denbora tarte handiagoarekin informatu eta komunikatzeko beharra azalarazi da.
- b) Gazteengana iristeko egiten den lanketa indartzearen beharra aipatu da, eskolan egiten denaz gain, 18 eta 29 urte arteko gazteengan hutsunea dagoela, adin talde horrek konpromisoak hartzeko zailtasunak izan ditzakela.
- c) Partaidetza ez da izan nahi bestekoa, handiago izaten saiatu behar da.
- d) Pertsona nagusiek galdetegia gazteleraz betetzearen atzean euskarazko alfabetizazio maila baxua dagoelako ustea.
- e) Galdetegia nahiko luzea izan da bete duten hainbaten iritziz eta puntu batzuetan konplexua ere bai; horrek pertsona batzuk atzera bota ditu. Horrekin batera, Interneteko plataforma erakargarriagoa egin daitekeela ere aipatu da.
- f) Proposamenen jarraipena gehiago sistematizatu behar da eta udalaren eguneroko lanarekin integratu.

## 4. AMAIERA

---

Hasteko, ordezkari politikoek aurrekontu partehartzaileen prozesuan hartutako erabakiak 2020ko Udal Aurrekontuan txertatu eta urtarrilaren Osoko bilkurak aho batez onartu du prozesuaren emaitza. Hortaz, esan daiteke egindako prozesu partehartzailearen emaitzak berme instituzionala lortu duela eta proposamenak exekutatzeko baldintzak ezarri direla.

2020ko aurrekontuak erabakitzeko prozesuak hiru erronka nagusiri aurre egitea eskatu du.

- Lehenik, aurreko urtean erabakitako proposamenen jarraipena egitea eta era egokian herritarrei transmititzea.
- Bigarrenik, 2020ko aurrekontuari begira inbertsio eta gastu arruntaren atalak herritarrekin era berezitan lantzea.
- Eta azkenik, prozesua bizpahiru hilabeteko epean egikaritzea.

Prozesuak, ahal izan duen neurrian, ezarritako erronkei eutsi dio. 2019ko aurrekontuak erabakitzeko prozesuan sortutako edukiarekin era berritzailean sortutako galdetegiak balio izan du inbertsioak lehenesteko; eta beste maila batean, gastu arruntari dagokionez, herritarren balorazio eta beharrak non kokatzen diren ezagutzeko baliagarria izan da. Irakaspen ugari atera dira 2020 aurrekontuak osatzeko prozesu honetatik eta aurrerantzean ere aintzat hartu beharko dira.

Balioan jarri behar da bi urtez jarraian Bakiok aurrekontu partehartzaileak landu dituela eta hori lortzeko izan duen malgutasuna. Aurrekontu partehartzaileak osatzeko prozesuan aurrerantzean ere eman beharreko pausu edo aldaketa batzuk ere irudikatu dira. Bide horretan ulertzen dira prozesuaren amaieran egindako balorazio edo ekarpen eraikitzaileak. Esan daiteke, urtez urte Bakio bere eredu propioa lantzen ari dela, herriaren ezaugarriei hobekien egokituko dena.